



Lana / La obra

Idatzi beharretan nengoen liburu hau. Eta idatzi behar nuen hil baino lehen.

Printzipioz, holako liburuaren helburua zera da: nor-baiten bizialdiaren gain, inguruan gertatu den guzti-guztia erratea, jakinaraztea, komentatzea... Beraz, ene kasuan, ene inguruan gertatu den guztia erratea eta jakinaraztea.

Honetaz, iritzi garrantzitsu baten aldekoa izan naiz betidanik: irakurle orok, gazteek, bereziki, gure historiaz –euskal historiaz, EKIN-ETArena barne, jakina– gertaturiko dena jakiteko eskubide oso-oso du, gertaera bera, on edo txar izan, atsegin ala gozogabe, maitagarri zein zakarra.

Erranak erran, agertu zitzaidan oztopo handienetako bat –arras potoloa bera– hauxe izan zait: gure inguruko gertaera horien artean, etxe barnean, hots, ETA erakundearen beraren barruan, hutsak, makurrak edo alukeriak ere izan arren, kontatu eta jakinarazi behar dituguia? Holakorik egin dezakeguia? Komeni dea? Zilegi dea, akaso? Bai ala ez?

Gogoan harturik, gainera, ene liburu honen izenburua, hain zuzen, *Egiari zor* dela... Neuk pentsatzen dut zernahi gertatzen edo gertatu dena, aipatu beharra dagoela, historiaren parte bat delako; areago: historiographia delako. Ez dezagun ahantz.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Egiari zor**
Egilea / Autor: **Iulen Madariaga**
Saila / Colección: Lekuko, 3
ISBN / EAN: 978-84-9746-893-0
Salneurria / Precio: 18,80 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 332
Formatua / Formato: 14 x 22,5 cm



Egilea / El autor

Iulen Madariaga Agirre (Bilbo, 1932). Espainiako Gerra Zibila amaitutakoan aitarekin Txilera joan zen erbesteturik. Bilbora 1942an itzuli zen. Bigarren hezkuntza amaiturik, zuzenbidea Erresuma Batuan ikasi zuen, eta Cambridgeko unibertsitatean lortu zuen doktoretza. Euskal Herrira itzuli ondoren, jardun politikoari ekin zion euskal abertzaletasunaren barruan.

EKIN taldearen sortzaileetakoa izan zen Iulen 1952an, ETAren hazia izanena zena. 1950eko hamarkadaren bukaeran sortu zuten ETA, beste hainbat kiderekin batera: “Jose Maria Benito Del Valle, Jose Manuel Agirre, Mikel Barandiaran, Txillardegí, Rafael Albisu, Iñaki Larramendi eta nik neuk sortu genuen ETA; hobe errana, ‘berbataiatu’ genuen EKIN”: 60ko eta 70eko urteetan erakundearen batzar eta ekintzetan parte hartu zuen, atxilotua eta torturatua izan zen, atzerrian ere bizi behar izan zuen sarri.

80ko urteetan, Ipar Euskal Herrian finkatu zen eta Herri Batasunaren sorkuntzan parte hartu zuen. Hamarraldiaren bukaeran berriz ere atxilotua eta espetxeratua izan zen Parisen ETArí laguntzeagatik. 90ko urteetan borroka armatuaren kontra posizionatu zen eta ETAk armak utz zitzan saiatu zen. Hori dela eta Aralar alderdiaren barruan sartu zen eta hainbat hauteskundetarako hautagai izan zen.

Hemen esan daitekeena baino askoz gehiago da Madariagako Iulen. Hau da bere autobiografia. Bere hitza: Egiari zor.